



UDAN EUSKARAZ 2021

2021eko martxoaren 12ko 25/2021 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez, "Udan Euskaraz 2021" kanpaina onartu zen.

Ebazpen horretan baldintza hauek ezartzen dira:

1-Datak, ordutegiak eta ratioak:

- Datak eta ordutegiak: ekainaren 30etik uztailaren 23ra, biak barne, 10:00etatik 13:00etara.
- Ezarritako ratioak honako hauek dira:
 - Haur-hezkuntzakoak (4-6 urte): 8-10 pertsona begirale bakoitzeko.
 - Lehen hezkuntzakoak (7-12 urte): 12-14 pertsona begirale bakoitzeko.
 - Hezkuntza-premia bereziak dituzten adingabeak: kasu bakoitzaren azterketa zehatzaren arabera izango da.

2- Nori zuzendua:

- Haur-hezkuntzako bigarren zikloko bigarren maiatik (2016. urtean jaioak) eta lehen hezkuntzako seigarren mailara arte (biak barne). D edo B hizkuntza-ereduan ikasten ari diren haurrak.
- Beste hizkuntza-ereduetan ikasten dutenek parte hartu ahal izango dute, baldin eta gutxienez eredu bereko zazpi hurreko taldea osatzen badute eta antzeko adina badute.

3- Onartzeko irizpideak:

- Inskripzio-ordena zorrotzean.
- Egindako inskripzio guztiei ezin bazaie erantzun, honela emango zaie lehentasuna:
 - 1.- Olaztin gutxienez urtebeteko antzintasuna duten haurrak. Guraso dibortziatuen adingabeen edo antzeko egoeren kasuan, haurra legezko zaintza dela-eta erroldatuta ez badago, haurraren tutoretako batek bete beharko du erroldan gutxienez urtebeteko antzintasuna.
 - 2.- Olaztin erroldatu gabeko haurrak, gutxienez Olaztin erroldatuta dagoen lehen mailako senideren bat dutenak eta gutxienez urtebeteko antzintasuna dutenak.
 - 3.- Olaztin erroldatu gabeko haurrak, gutxienez Olaztin erroldatuta dagoen bigarren mailako senideren bat dutenak eta gutxienez urtebeteko antzintasuna dutenak.
 - 4.- Olaztin erroldatu gabeko haurrak, Domingo Badosen eskolatuta daudenak.
 - 5.- Olaztin erroldatu gabeko haurrak, tutoretako batek udalerrian lan egiten badu.
 - 6.- Olaztin erroldatu gabeko haurrak.

4-Inskripzioak, ordaintzeko modua, bajak:

- 948-012 012 ren bidez, 2021eko martxoaren 24tik apirilaren 9ra.
- Ordaintzeko modua: 9lehentasunez 48-012 012 telefonoaren bidez edo Udaleko edozein kontutan ingresatuz.
- Izen-ematea formalizatzeko, izena emateko epean ordaindu beharko da. Ordainketa banku-kontuan eginez gero, ordainagiria aurkeztu beharko da izena ematen den bitartean.
- Bajak: baja izena emateko epean gertatzen bada soilik itzuliko da ordainketa, aldez aurretik Udalari jakinarazita edo 948-012 012an jasota.
- Ez da epez kanpoko inskripziorik onartuko.

5.- Udan euskaraz 2021 kanpainaren araudia:

- Neska-mutilak begiraleen ardurapean daude 10:00etatik 13:00etara. 10:00etatik aurrera, haurren laguntzaileak ez dira Sutegi parkean egongo.
- Bilketa-ordua 13:00etan izango da. Garaiz egingo da, ez lehenago, ez geroago.
- Neska-mutilak ezarritako ordutegitik kanpo sartu edo irten behar izateko arrazoiren bat egonez gero, 10:00etatik 13:00etara, aldez aurretik jakinarazi beharko zaio begiraleari.
- Haurren arduradunek begiraleei jakinarazi beharko diete zeintzuk jotzen diren etxera bakarrik.
- Neskaren edo mutilaren batek bere kabuz alde egiten badu, neurriak hartuko dira.
- Pertsona, objektu eta leku guztiekiko errespetua mantenduko da.
- Gomendagarria da hurrek bisera, bazkaria eta ura, eguzkitako krema eta oinetako eroak eramatea.

6- Tarifak:

- 35,00 € pertsona bakoitzeko. Bi anai-arreba edo gehiago bertaratzen badira: 58,00€, bertaratutako anai-arreben gutzirako kopuruagatik.
- Ordenantza honetako tarifak ordaintzetik salbuetsita egongo dira, udalean berariaz eskatu ondoren, oinarrizko gizarte-zerbitzuek horretarako egindako txostenaren bidez prekarietate ekonomikoa egiaztatzen duten pertsonak.

7-Gutxieneko asistentzia:

Ezinbesteko baldintza izango da zerbitzu honetara bi astez jarraian joatea, eta, horretarako, asistentzia kontrolatzeko mekanismoak ezarriko dira. Gutxieneko asistentziarik ezean, ez da onartuko datorren urteko Udan Euskaraz-en kanpainan.

8- Etendura:

Udalak kanpaina bertan behera uzteko aukera izango du, COVID-19k eragindako higie eta osasun-arrazoiengatik.